

Donostia, 2021eko maiatzaren 26a

UDALBATZAREN IDAZKARI NAGUSIARI

ALKATEA UDALBATZAN LEHENBAILEHEN AGERTZEKO ESKAERA, KONTXAKO ALDAGELEN AZPIAN AZALDUKO ZULOA DELA ETA

Elkarrekin Donostia Udal Taldearen bozeramaile Aitzole Araneta Zinkunegik, Udalbatzaren Organo Araudiko 100. artikulua ematen duen babesa aintzakotzat hartu eta alkatea, Eneko Goia, UDALBATZAREN OSOKO BILKURARA lehenbailehen AGERTZEA eskatzen du, Kontxako aldagelen azpian hil honetan azaldu den zuloarekin gertatutakoaren berri ematera.

PRESAREN JUSTIFIKAZIOA

Orain dela aste batzuk jakin zen Kontxako aldagelen azpian beste zulo bat (hirugarrena) agertu zela, metroaren pasanteko obren ondorioz. Hori zela eta, metroko obren jarraipenerako batzorde berezirako deia egin zen, baina alkatea ez zen han izan. Hala, han emandako informazioa aztertu ondoren, esan daiteke informazioa ezkututzen, behintzat, saiatu direla, gertaera horrek hirian eragin dezakeen alarma soziala ahalik eta gehien gutxitzeko.

JUSTIFIKAZIOA

Maiatzaren 24an, astelehena, Donostiako metroaren obren jarraipenerako batzorde berezirako deia egin zen. Batzorde hartan, hedabideetan agertu ez zen informazio garrantzitsua eman zuten ETSko arduradunek. Aurren-aurrena, adierazi zuten 138 metro kubiko hormigoiz bete zutela zuloa. Metroaren obretan orain arte azaldu den zulorik handiena, beraz; alde handiz, handiena ere. Bigarrenik, batzordean izan ziren teknikariek onartu zuten tunelera bertara erori zela zuloko materiala. Beraz, haiek ere sumatu zezaketen beste zulo bat azalduko zela inguru hartan. Hala ere, prentsa-oharrean, ETSk adierazi zuen ustekabeen aurkitu zutela zuloa, ohiko ikuskapen batean. Gainera, aldagelak itxi zituztenean, Udal Gobernuak ezkutatu egin zuen ixteko arrazoia, eta "matxura" zela esan zuen. Horregatik, beharrezkotzat jotzen dugu alkateak azalpenak ematea, gauzak nola gertatu diren eta horren gaineko informazioa orain arte nola kudeatu den esplikatzeko.

Aitzole Araneta Zinkunegi
Elkarrekin Donostiaren bozeramailea